Diskoak eta liburuak argitaratzeko diru-laguntzen oinarriak

2025

Lehenengoa: eskatzaileak

SGAE Fundazioak honako eskaera hauek aztertuko ditu:

DISKOENTZAT:

- Disko bat autoeditatuko duten SGAEren bazkideak diren egileak; disko horretan haiek egindako lanak sartuko dituzte. Kasu honetan, enpresari autonomo gisa fonografia-produktore lanak egiten dituzten egileek honakoak bete behar dituzte: legeak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak; halaber, dagokien erregimenean alta emanda egon behar dira.
- Autoeditatuko ez duen SGAEren bazkidea den egilea, baina diskoetxe batekin kontratu bat sinatuko duena; horretarako, bere lanak dituen disko bat ustiatzeko dagokion kontratua sinatuko du.
- Helburu sozial gisa diskografia-produkzioaren eta/edo diskografia-banaketaren jarduera duten pertsona juridikoak (merkataritza-sozietateak, fundazioak eta/edo elkarteak). Aurkeztu ahalko dira eskaerarekin batera sartutako proiektua SGAEren egile bazkideen errepertorioko lanak dituen disko bat produzitzeko eta/edo banatzeko bada.

Nolanahi ere, aldez aurretik aipatutako diskoetarako laguntzen eskatzaile guztiek aurkeztutako diskoak baldintza hau bete beharko du: diskoko errepertorioaren gutxienez % 50 aldez aurretik euskarri komertzialetan grabatu gabeko lanak izan behar dira. Euskarrian edozein generoko edo musika-adierazpeneko lanak sar daitezke.

Halaber, laguntza eskatzen dutenek, enpresari autonomoak (pertsona fisikoak) edo juridikoak izan, eskaera egiteko mementoan eta gutxienez 2026ko abenduan 31ra arte, honako hau eduki behar dute: diskografia-euskarriaren ustiapen-eskubideen % 100eko titulartasuna.

LIBURUENTZAT:

- Haiek egindako liburu bat editatuko duten enpresari autonomoak diren SGAEren egile bazkideak. Kasu honetan, enpresari autonomo gisa liburu-argitaratzaile lanak egiten dituzten egileek honakoak bete behar dituzte: legeak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak; halaber, dagokien erregimenean alta emanda egon behar dira.
- Bere liburua autoeditatuko ez duen SGAEren bazkidea den egilea, baina argitaratzaile batekin argitaratze-kontratu bat sinatuko duena; horretarako, liburua argitaratzeko dagokion kontratua sinatuko du.
- Helburu sozial gisa liburuak argitaratzea duten eta SGAEren egile bazkideen errepertorioa zabaltzen lagunduko duen liburu bat argitaratzeko proiektua aurkezten duten pertsona juridikoak (merkataritza-sozietateak, fundazioak eta/edo elkarteak).

Edonola ere, argitaratuko den lana ezingo da aldez aurreko argitalpen komertzialetan argitaratuta egon.

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736

ESKATZAILE GUZTIENTZAKO BALDINTZA KOMUNAK:

Eskatzaileek ezingo dute, SGAE Fundazioak eskainitako diru-laguntza guztien artean, laguntza bat baino gehiago jaso urte berean. Salbuespen bakarra diru-laguntza hau izango da: Nazioartean musika sustatzeko bidaientzako diru-laguntzak. Hori jasotzea bateragarria da beste diru-laguntzekin.

Berezko nortasun juridikoa duten erakundeek laguntza bat baino gehiago jaso ahalko dute deialdi honetan, betiere, SGAEren bazkide desberdinen proiektuetarako badira.

Ez dira aintzat hartuko SGAEko ordainketak egunean ez dituztenen eskaerak; hain zuzen ere, honako hauenak: fonografia-produktoreenak eta argitaratzaileenak, enpresari autonomoak zein nortasun juridikoko enpresariak izan.

Diru laguntza hauen ondoreetarako, SGAEren errepertoriotzat jotzen dira SGAEren egile bazkideek sortutako lanak.

Bigarrena: proiektuen tipologia

Deialdi honetan parte hartu ahalko dute:

- Dagoeneko produkzio fonografikoa amaitu duten proiektu diskografikoek, edizioa 2024ko uztailaren 27etik 2026ko abenduan 31ra bitartean egiten bada. Horrela, SGAE Fundazioaren jarraibideak betez diskoaren edizio-fasea babesten da eta ez produkzio-fasea. Diru-laguntzarako gastu konputagarriak diskoaren edizioari dagozkionak bakarrik izango dira (hala nola, fabrikazioa, libretoaren edizioa, promozioa, merkaturatzea, plataforma digitaletako posizionamendua, etab.). Fonogramako errepertorioa SGAEko bazkideak diren autoreena izan behar da.

  Proiektu diskografikoa aurkezteko, haren deskribapena eta argitalpen-datak zehazten dituen kronograma aurkeztu beharko dira, bai eta oinarri hauen ondorioetarako laguntzaren xede diren gastuen, hau da, fabrikazioaren, libretoaren edizioaren, sustapenaren, merkaturatzearen eta plataforma digitaletan jartzearen arabera banakatutako aurrekontua ere. Aurrekontu xehatua zerbitzu horien hornitzaileek lanak egiteko eskatzaileari aurkeztutako aurrekontuekin egiaztatu beharko da. Era berean, fonogramaren argitalpena ziurtatzen duten kontratuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira. Fonograma formatu digitalean bakarrik bidali beharko da, inprimakian dokumentu gehigarri gisa edo posta elektronikoz.

- Dagoeneko originala idatzi duten argitaratze-proiektuek, argitaratzea 2024ko uztailaren 27etik 2026ko abenduan 31ra bitartean egiten bada. Laguntza honetarako gastu konputagarriak liburuaren argitalpenari dagozkionak izango dira (fabrikazioa, sustapena, merkaturatzea, plataforma digitaletako posizionamendua, etab.), eta ez jatorrizkoa idazteari dagozkionak. Liburuak honako baldintza hauek bete behar ditu: SGAEren errepertorioa edukitzea (gidoiak, lan dramatikoak, hitzak eta abar), SGAEko autore bat edo autore talde bat sustatzen laguntzea edo SGAEko bazkideek lana egiten duten kreaziozko esparruaren ikerketari buruzkoa izatea.

  Argitalpen proiektua aurkezteko, haren deskribapena eta argitalpen-datak zehazten dituen kronograma aurkeztu beharko dira, bai eta oinarri hauen ondorioetarako laguntzaren xede diren gastuen, hau da, fabrikazioaren, sustapenaren, merkaturatzearen eta plataforma digitaletan jartzearen arabera banakatutako aurrekontua ere. Aurrekontu xehatua zerbitzu horien hornitzaileek lanak egiteko eskatzaileari aurkeztutako aurrekontuekin egiaztatu

beharko da. Era berean, liburuaren argitalpena ziurtatzen duten kontratuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira. Liburuaren testua formatu digitalean bakarrik bidali beharko da, inprimakian dokumentu gehigarri gisa edo posta elektronikoz.

Hirugarrena: SGAE Fundazioaren ekarpena

Eskabide bakoitzari gehienez ere 2.000 € (zergak barne) esleitu ahal izango zaizkio, bai diskoeraeako, bai liburuetarako. Ordainketa irizpide hauen zortzigarren klausulan jartzen duenaren arabera egingo da, hitzarmenera lotutako ordainketa-dokumentu baten bidez eta dagozkion PFEZaren atxikipenak aplikatuz. Kantitate horiek ezingo dira SGAEko eskubideak ordaintzeko erabili.

Laugarrena: dokumentazioa

Eskabideekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Eskaera-inprimakia dagokion moduan beteta.
2. Pertsona juridikoek hau aurkeztu beharko dute nahitaez:
   a. IFK txartelaren kopia.
   b. Pertsona juridikoaren (merkataritza-sozietatea, elkartea edo fundazioa) eratzeko eskrituraren kopia ziurtatua; pertsona juridikoa behar bezala inskribatuta egon behar da dagokion erregistroan (Merkataritza Erregistroa, Elkarteen Erregistroa edo Fundazioen Erregistroa).
   c. Merkataritza-sozietateen kasuan, indarreko administratzaileen kargua agertzen den eskrituraren kopia ziurtatua.
   d. Elkarteen eta fundazioen kasuan:
      i. Elkartearen edo fundazioaren indarreko estatutuak.
      ii. Zuzendaritza Batzordean (elkarteak) edo Patronatuan (fundazioak) indarrean dauden karguak dituzten pertsonek emandako Elkarteen Erregistroaren edo Fundazioen Erregistroaren 2025ko Ziurtagiria, dagokionaren arabera.
3. Autoeditatu beharrean hirugarren batekin diskoa edo liburua argitaratzeko akordio bat lortuko duten egileen kasuan, diskografia-kontratuaren edo liburuaren argitalpenaren kontratuaren kopia aurkeztu beharko dute. Kontratua ez badute eskaera aurkezteko egunerako sinatu, asmoen gutuna aurkeztu beharko dute, fonografia-produktoreak, edo liburu-argitaratzaileak sinatuta, kasuaren arabera. Nolanahi ere, laguntza ematen bazaie, sinatutako kontratuaren kopia eman beharko diote SGAE Fundazioari 2026ko abenduan 31 baino lehen, eta, hala egin ezean, laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute.
4. Lanen egilearen/egileen CVa.
5. Diru-laguntza eskatu duenaren proiektuaren deskribapena eta kronograma.
6. Erakunde batek egiaztatutako kostuen aurrekontu zehatza.
7. Beste erakunde batzuen parte-hartzearen ziurtagiria, hala badagokio.
8. Autorearen edo oinordekoaren babes-gutuna, eskatzailearekin bat ez badator.
9. Laguntza eskariaren xede den diskoan sartzen diren obren zinpeko aitorpena, obren autoreen izenarekin. Horrekin batera, obrak SGAEn erregistratu izanaren fitxak aurkeztu beharko dira. SGAEren webgunean eskura daitezke, “Repertorio on line” atalean (https://enlinea.sgae.es/RepertorioOnline). Diskoa autoeditatzen duten eta obrak SGAEn erregistratzeko prozesuan dauden autoreen kasuan, SGAEn aurkeztutako obren deklarazioaren kopia aurkeztu beharko dute erregistratzeko izapidean.
10. Diskoaren edukia edo liburuaren testua formatu digitalean, inprimakian dokumentazio gehigarri gisa edo posta elektronikoz ayudas@fundacionsgae.org
11. Egile edo interpretatzaile eskatzaileen baimena, SGAE Fundazioak deialdi honen esparruan haien datu pertsonalak erabil ditzan. Eskatzaileak pertsona juridikoak badira, ordezkatzen

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736

dituzten egileen edo interpretatzaileen baimena aurkeztu beharko dute, SGAE Fundazioak deialdi honen esparruan haien datu pertsonalak erabil ditzan. Aurkeztu beharreko baimen-eredua SGAE Fundazioaren webgunean dago eskuragarri, laguntza honen deialdiaren atalean.

Bosgarrena: ebaluazioaren irizpideak

Jasotako proiektuak ebaluatzeko, bereziki alderdi hauek aintzat hartuko dira:

1. Autorearen eta gizarte osoaren arteko harremana sustatzea, autore-eskubidearen gaineko pedagogia soziala suspertzea eta kultura eskuratzeko aukera bultzatzea.
2. SGAE Fundazioak lantzen duen errepertorio osoan, adierazpen artistiko berriak eta diziplina anitzeko proiektuak sustatzea.
3. Beste instituzio eta erakunde batzuekin lan egitea.
4. Emakume autoreen partaidetza bultzatzea.

Horrez gain, aurkeztutako aurrekontuen arabera proiektuak daukan bideragarritasuna ere hartuko da kontuan, baita gizartean zein kulturan izan dezakeen oihartzuna eta, hala badagokio, laguntza hauen bidez esleitutako baliabideen ezarpena ere.

Seigarrena: eskaeren aurkezpena eta epea

1. Eskaeraren inprimakia SGAE Fundazioaren webgunean egongo da eskuragarri: www.fundacionsgae.org. Inprimakiaren formatu elektronikoa erabili beharko da, nahitaezko eremu guztiak bete behar dira. SGAE Fundazioak eskaera guztiak jaso izana adieraziko du, eta falta diren agiriak jakinaraziko dizkie dokumentazio osoa aurkeztu ez dutenei. Aurkeztu beharreko dokumentazio guztia ez dagoela adierazten dieten eskatzaileek 15 eguneko gehieneko epea izango dute eskaera zuzentzeko, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik. Eskaera adierazitako epean zuzentzen ez badute, ez da aintzat hartuko.
2. Diskoak eta liburuak argitaratzeko laguntzen eskabideak aurkezteko epea 2025ko maiatzaren 20a (asteartea) hasiko da, eta 2025ko abuztuan 01a (ostirala) 23:59ak arte egongo da zabalik. Ez dira aintzat hartuko epe horretatik kanpo heltzen diren eskaerak.

Zazpigarrena: eskaeren ebazpena eta prozedura

1. Ebaluazio-batzorde bat arduratuko da arauetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eskaerak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.
2. Batzordeak laguntzak emango dituen erabakiko du eta erabakia interesdunei idatziz jakinaraziko die.
3. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.

Zortzigarrena: elkarlanaren formalizazioa

SGAE Fundazioak eta proiektua onartu zaion eskatzaileak elkarlanerako hitzarmen bat izenpetuko dute. Horrek, halabeharrez dokumentu honetan eskatutako irizpideak bete beharko ditu eta jarraian zerrendaratuko dugun informazio hau:

1. Alderdien eskubideak eta betebeharrak.
2. Proiektuaren hasieraren eta amaieraren epea.
3. Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.
4. Ordaintzeko modua.

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736

5. Proiektuaren jarraipena (txostena, ebaluazioa, SGAE Fundazioaren irudi kooperatiboa daukan materiala, amaierako memoria). Azken memoriak honako hauek jaso behar ditu: argitaratzeko egindako ekintzen zerrenda, horien kostuaren banakapena (emandako laguntzaren zenbatekoarekin bat etorri behar da) eta kostu horiek egiaztatzen dituzten agiri ekonomikoen kopia.
6. SGAE Fundazioari diru-laguntzaren bidez editatutako fonogramari buruz informatzeko konpromisoa. Banaketa fisikoaren kasuan, Erreprodukzio Mekanikoko Sailak emandako faktura erantsi behar da (egile-eskubide gisa, euskarri fisikoaren fabrikazioagatik eta banaketagatik), bai eta sail horrek faktura ordaindu ondoren emandako lizentzia ere, banaketa fisikoa egon baldin bada. Banaketa digitala bada, legezko plataforma digitaletan egin dela frogatu beharko da.

SGAE Fundazioak laguntzaren onuradunari eskatuko dio hitzarmena formalizatzeko beharrezko dokumentazioa. Dokumentazio hori helarazteko gehieneko epea bi (2) hilabete izango da, SGAE Fundazioak hori eskatzen duenetik. Hautatutako pertsonak ez badu dokumentazioa epe horretan helarazten, laguntza jasotzeko eskubidea galduko du. Dokumentu guztiak aldeen artean sinatuko den hitzarmenaren atal bereizezina izango dira, eta ez dira itzuliko.

Halaber, SGAE Fundazioak laguntzaren onuradunari helaraziko dio aldeek sinatu beharreko hitzarmena. Onuradunak gehienez bi (2) hilabeteko epea izango du hitzarmenaren aleak sinatuta itzultzeko, laguntza kobratzeko ordainketa-agiriarekin edo fakturarekin batera (kasuaren arabera). Onuradunak hitzarmena edo ordainketarako dokumentua edo faktura aipatutako epean helarazten ez baditu, laguntza galduko du.

Bederatzigarrena: norberaren datuak isilpean gorde eta babestu beharra

Proiektuaren kudeaketan aldeek ematen duten informazio guztia konfidentziala da eta ezingo zaie hirugarrenei ezagutzera eman. Era berean, ezingo da erabili ezarritako helburuetarako ez bada, indarreko legeriak zehaztutako salbuespenetarako ez ezik.

Eskatzaileak borondatez emandako datu pertsonalak SGAE Fundazioaren ardurapeko fitxategi batean gordeko dira, eta laguntzen deialdi honetan eskatzailearen parte-hartzea kudeatzeko erabiliko dira bakarrik. Datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubidearen titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, erabilera mugatzeko, beste norabait eramateko eta horien aurka egiteko, baita banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko ere. Horiek erabiltzeko helbide honetara idatz dezake: SGAE Fundazioa, zerbitzu juridikoen arreta, Bárbara de Braganza kalea 7, 28004 Madril. Idazkiak izena, abizena eta baliatutako eskubidea adierazi beharko ditu, eta NAN/AIZ edo pasaportearen kopiarekin batera aurkeztu beharko da. SGAE Fundazioak interesdunak emandako datuak egiazkotzat joko ditu eta usteko du haren egungo egoerarekin bat datozela. Interesduna behartuta dago aldaketak jakinaraztera, horiek gertatzen diren mementotik aurrera.

Hamargarrena: arau orokorrak

1. Eskatzaileak SGAE Fundazioaren logotipoa jarriko du argitaratutako diskoaren edo liburuaren karatulan eta horren promozioan; hauen artean publizitatea, kartelak, katalogoak, liburuxkak eta beste antzekoak. Gainera, honako testu hau gehituko dio: “SGAE Fundazioaren laguntzarekin”, betiere ekintza horien data laguntza horien ebazpenaren eguna baino geroagokoa bada.
2. Eskatzaileak eskabidea aurkezteak oinarri hauek onartzea dakar berekin, bai eta eskatzaileak SGAE Fundazioari baimena ematea bere Memorietan eta gainerako argitalpenetan emandako laguntzari buruzko informazioa zabaltzeko

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736

3. Eskatzaileak, proiektua gauzatzeari eta garatzeari dagokionez eskatzaileak indarrean dagoen legeria haustearen ondoriozko edozein erantzukizunetik kanpo uzten du SGAE Fundazioa.
4. SGAE Fundazioak uste du SGAE FUNDAZIOAri ematen zaizkion datu eta informazio guztiak egiazkoak direla eta errealitatearekin bat datozela. SGAE FUNDAZIOAk edozein unetan egiaztatzen badu eskatzaileak emandako datu edo informazioren bat ez dela zehatza edo benetakoa, eskaera era automatikoan ezetsiko da, eta, laguntza dagoeneko onartuta badago, horretarako eskubidea galduko du, eta dagoeneko kobratu badu, zenbatekoa itzuli beharko du.

Informazio gehiago: ayudas@fundacionsgae.org

Entidad inscrita en el Registro de Fundaciones Culturales B.O.E. 140397 – O.M. 24.2.97 – CIF: G-81624736